



Telefono mugikorreko aplikazioen bitartez ligatzeko joera geroago eta zabalduago dago. Adin, genero eta orientazio guztietako herritarrak topatu daitezke Durangaldeko plaza digitaletan. Gainera, koronabirusak joera hori indartu du. Hartu-emanak gutxitzearen ondorioz, askok sarean topatu dute hartu-eman berriak egiteko bidea. • 4-5

Ligatzeko aplikazioak, hartu-emanen plaza berriak



Erotikari buruz

Kultura • Maddi Loiti elorriarrak liburu erotikoa kaleratu du. • 16

Durangaldeko positibo kopuruak kezkarria izaten jarraitzen du

COVID-19a eskualdean • Datuei erreparatuta, lasaitzeko baino kezkatuta jarraitzeko arrazoi gehiago dago. Durangok, lurretak, Eloorriok eta Zornotzak eremu gorrian jarraitzen dute eta lehenengo hiru herrietan intzidentzia

tasak gora egin du egunetik egunera joan zen barikutik atzora. Denbora horretan, Zornotza da beharrezko joera erakusten duen herri handi bakarra, baina eremu gorritik irten ahal izateko tasa bikoiztu egiten du oraindino • 6



"Futbola asko hazten dabil Ameriketako Estatu Batuetan"

Futbola • Jon Muñoz durangarra entrenatzaile lanetan dabil Bartzelona Klubak Texasen duen futbol akademian. • 20

DHEO DURANGO
Hizkuntza Eskola Ofiziala / Escuela Oficial de Idiomas

2021eko matrikula librea ZABALIK
On-line
Otsailaren 1etik
Otsailaren 12ko 13:00etara arte
36,18€

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45

Hizkuntza eskolan?
Bai. Ikasi euskara / Ja. Lernen Sie Deutsch
Oui. Apprenez le français / Yes. Learn English

Durango etxebizitza sozialen bloke batean Europako ikerketa bat hasiko dute energia kontsumoa gutxitzeko

Europako RenoZEB proiektuagaz lankidetzan hasi dute energia kontsumoa gutxitzeko



Laubideta kalean dagoen eraikinean egingo dute ikerketa.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak lankidetzan hasi du Europako RenoZEB proiektuagaz energia kontsumoa gutxitzeko. Horretarako, Laubideta kaleko etxebizitza bloke sozial bat ipiniko du ikerketaren erdigunean, Behargintzaren ondoan dagoen etxebizitza sozialen blokea, hain zuzen ere. Eraikina energiaren birgaituko dute eta kontsumo maila egungoa baino %60 baxuagoa den maila batera zelan eraman ikertuko dute.

Zelan birgaitu etxebizitza bat teknologikoki, energia kontsumoa nulua izan dadin? Galdera horri erantzuteko, Europako RenoZEB proiektuaren zerbitzura ipiniko dute etxe blokea, ikerketa egiteko beharrezkoak diren prototipoak instalatu dituzten bertan. Besteak beste, fatxadan egingo dituzte instalazioak. Eguzki-instalazio termikoak, eguzki-instalazio fotovoltaikoa eta beroa berreskuratzeko aireztapen mekanikoa ipiniko dituzte. Ins-

talazioak maiatzerako amaituta egotea gura dute, eta ikerketak 48 hilabeteko iraupena izango du. Lanek 366.361,21 euroko aurrekontua izango dute eta horietatik

Europako RenoZEB proiektuaren zerbitzura ipiniko dute etxe blokea, bertan ikerketa egiteko

310.159,49 euro Europatik jasotako laguntzekin finantzatu dute.

Eraikin soziala

Udal ordezkarien esanetan, trantsizio energetikoaren norabidean egiten den pauso bat da honako hau eta bide horretan "sakonduko" dutela aurreratu dute Julian Ríos eta Garazi Errasti udal zinegotziek. Ikuspegi soziala da kontuan hartzeko beste ikuspegi bat. Eraikina 1965koa da eta gaur egun gizarte bazterkeria jasaten duten herritarren erabilera dago zuzenduta.

"Trantsizio energetikoaren norabidean emandako pauso bat" dela diote Ríos eta Errasti zinegotziek

Alde horretatik, proiektuak bertako bizilagunen egoera hobetzen lagundu dezakeela azaldu dute zinegotziek. "Durango berdeagoa eta sozialagoa" eraikitze bidean, "norabide guztietan" lan egingo dutela adierazi dute Ríosek eta Errastik. Durango Udalak eraikinaren inguruko zehaztasunak eman ditu. Eraikina oinplano angeluzuzenekoa da. Lau solairu ditu guztira. Erabilera komuneko behetako solairu bat, eta bizileku modura erabiltzeko beste hiru. Gaur egun, zazpi etxebizitza daude bertan.



Izen ematea zabalik dago Durango Helduen Hezkuntza Institutuan

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durango Helduen Hezkuntza Institutuan zabalik dago bigarren lauhilekoan matrrikulatzeko epea, urtarrilaren 27tik otsailaren 4ra, biak barne. Helduen Hezkuntzak oinarrizko prestakuntza ematen du: alfabetatze hasi eta Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortu arteko prestakuntza. Ikasketak euskaraz ere egin daitezke. Alde batetik, Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortu daiteke. Bestetik, goi mailako hezkuntza zikloetarako sarbide proba prestatzeko ikastaroak ere ematen dituzte. Horrez gainera, irakaskuntza ez arautuaren arloan informatika, ingelesa eta atzerritarrentzako gaztelania ikastaroak ematen dituzte.

Durango Udalak 'Durango' plaka eta San Fausto Iturria mantendu ditu

Herriko sarreran dagoen lursail horretan aparkaleku berria egiten dabilta



Durango sarreran dagoen iturria eta plaka.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Prensa oharrean azaldu dutenez, Durango Udalak 'Durango' plaka berria ipintzea erabaki du Talleres Durango (Tadu) fabrika zaharraren ondoko iturriaren ondoan. Lehengo plaka Olleria kalean eraitsitako eraikinetik kendu zuten.

Durango sarreran dagoen lursail horretan aparkaleku egiten dabilta. Azulejuzko plaka historikoa San Fausto iturriaren ondoan ipini dute eta aparkaleku berriaren hirigintza-proiektuan mantendu da, herriko ondarea zaintzeko. 'PEOU-2 San Fausto' proiektuak Gernikako Arbola biribilgunearen inguruko aldiriko aparkaleku berria eta Faustebide kalean egingo diren lanak biltzen ditu.

EAJk gaztetxea zegoen eraikina botatzeko eskatu dio gobernu taldeari

Montevideo kalearen bueltako herritar talde bat sinadurak batzen hasi da eraikina botatzea eskatzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango EAJk gaztetxea izandako eraikina botatzeko eskatu dio udal gobernu taldeari. Sara Ojea zinegotzi jeltzaleak aurkeztu du eskaria, asteon egindako osoko bilkuran. Ocejak hainbat argudio eman du eraikina botatzea proposatzeko. "Eraikina Mañaria errearen igarobidean dagoenez, eremu hori inundagarri lez kalifikatuta dagoela dio URA agentziak. Bestetik, eraikin zatiak jausteko arriskua dago. Eta jausi izan direnean, suhiltzaileek esku hartu behar izan dute. Gainera, eraikineko atal batzuetan amiantoa dago", azaldu zuen Ocejak. "Honen guztiaren atzean, baina, bada sakoneko beste kontu bat: eraikinaren ingurunea egokitzea eta pasabide berri bat ipintzea",

gehitu zuen. Ima Garrastatxuk erantzun egin zion eskariari. Eraikina botatzeari buruzko eztabaida otsaileko osoko bilkurarako antolatuko zela aurreratu zuen.

Bien bitartean, Montevideo kalearen bueltako herritar talde

Eraikina botatzeari buruzko eztabaida otsaileko plenoan egingo dela iragarri du alkateak

batek sinadurak batzeari ekin dio eraikina botatzea eskatzeko.

Eraikina 1999an okupatu zuten hainbat gaztek. Gaztetxea atondu zuten bertan, eta orain urte gutxira arte egon da martxan.

Bizkaiko sagardogileek 73.000 litro sagardo ekoiztu dituzte

Zornotzako Uxarte sagardotegian aurkeztu dute denboraldi berria. Osasun neurriak beteta, sagardoa etxean zein sagardotegietan kontsumitzera deitu dituzte herritarrek

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

"Gorputz handikoak, kolore bizikoak, mingotsak eta eboluziorako gaitasuna dutenak". Juan Zuriarrain enologoak berba horiekin deskribatu ditu Bizkaiko sagardo berriak. Bizkaiko sagardogileek Zornotzako Uxarte sagardotegian aurkeztu dute aurtengo sagardo denboraldia. Aurtun, "izaera handiko" 73.000 litro sagardo ekoiztu dituzte, eta prest daude kontsumitzailearengana helarazteko.

Koronabirusak sasoi korapilatsua ekarri duen arren, Bizkaiko sagardogileek "hemen" daudela eta "kalitatezko sagardoa" ekoizten jarraitzen dutela adierazi dute. Horregaitik, sagardoa kontsumitzera deitu dituzte herritarrek, etxean zein sagardotegietan. "Gure tradizioaren parte den edaria da eta aurtun koronabirusaren aurkako protokolo guzti-guztiak ondo markatuta datoz", esan dute. Ohiko moduan, Bizkaiko sagarragaz ondu dute sagardoa.



Denboraldi berria Uxarte sagardotegian aurkeztu dute.



Eubako frontoia.

Eubako frontoia konpontzeko obrak hasi dituzte asteon

Hobekuntza lanek 13.158,75 euroko aurrekontua izango dute. Batez ere, zoladura eraberrituko dute

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Zornotzako Udalak Eubako frontoiko kontraktantxako zoladura egokitzeko eta konpontzeko lanak hasiko ditu asteon. Hobekuntza lanek 13.158,75 euroko aurrekontu dute eta otsailaren erdialdera amaituta egotea aurreikusten dute. Lanak egin bitartean, frontoia itxita egongo da. Eguraldiak

eragindako higaduraren ondorioz egin behar dituzte konponketak. Egokitze eta hobekuntza lanak frontoiko zoladura ordezkatzean oinarrituko dira batez ere. Hondatutako zoladura garbitu ondoren, inprimazio bat aplikatuko dute, ur-lurruna zabaltzeko ahalmen handiko zoladura berria baldintza egokietan egin ahal izateko.

Garaiko Udalak diru laguntzak emango ditu euskara ikasteagaitik

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak diru partida bat ipini zuen 2020ko aurrekontuetan, 2019-2020 ikasturtean euskalduntze edo alfabetatze ikastaroetan parte hartzen zuten herritarrei bekak emateko. Diru laguntza horien onuradun izango dira Garain errolatuta egon eta euskara ikastaroak egin dituztenak, euskaltegi eta barnetegi homologatuetan edo Hizkuntza Eskolan. Bateragarria da beste erakundeek helburu bererako eman ditzaketen bestelako diru laguntzekin.

Diru laguntza emateko, kontuan hartuko dira, besteak beste, ikastaroen trinkotasuna (egunean ordu eta erdi, ordu bi eta abar) eta asistentzia. Otsailaren 1a izango da azken eguna eskariak Garaiko Udaleko Erregistroan aurkezteko. "Garrantzitsua da helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari, horri eskerrak Garaiko euskaldunen ehuneko handitu eta euskararen erabilera hedatu ahal direlako", dio udalak.



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com

IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

'Tinder belaunaldia': ligatzeko modu berrien aroa

Tinder, Grindr, Wapa, Lovoo, Meetic. Telefono mugikorrek aplikazioen bitartez ligatzeko aukera geroago eta zabaldago dago. Adin, orientazio eta genero askotariko herritarrek topo egiten dute hartu-eman berriak sortzeko plaza digitalean. Durangaldean ere oso zabalduta dagoen joera da



Lahia 3.0 Sexologia eta Hezkidetzak elkarteak: Leire Zubizarreta, Itsaso Cañada, Jone Exposito eta Iñintza Lapazarán.

Alde horretatik, inor ez dadila larritu. Aurreiritziak atzean gertzen hasi dira. "Lehen, herri txiki batekoa bazinen eta aplikazioan sartuta bazenbiltzan, herri osoak zuen horren berri. Orain, normalizazio bat gertatu denez, erreparoa atzean geratu dira", dio Zubizarretak. "Adin, orientazio eta genero askotako jendea topatu dezakezu bertan", gaineratu du.

"Instagramek garrantzi handia du gazteagoen artean; gehiago ligatzen dute Instagramen"

Aukerak, arriskuak

Ez dago dudarik. Aplikazioek ate asko zabaltzen dituzte. Baina horrek ez du esan gura tentuz ibili behar ez denik. Leku guztietan legez, hemen ere badira iruzurrak, eta tarteka posible da egiazkoa ez den erabiltzaile batez topo egitea. Beste alde negatibo bat da sareak ez duela aurrez aurreko topaketak eskaintzen duen freskotasan hori ematen. "Beste erabiltzailearen batez berbetan hasita, haren irudi bat egiten duzu, baina zuk ez dakizu zelako ahotsa duen, zein keinukera dituen, zein usain duen. Informazio hori ez duzunez, zuk eraikitako irudi horrek gero ez du zertan errealitateagaz bat egin", azpimarratu du Zubizarretak.

Edozelan ere, aukeraz beteriko eremu bat ere bada. "Jendea ezagutzeko aukera duzu. Herriko betikoak barik, urrutiragokoak. Herri berri batera bazoaz ere, lagunak egiteko balio diezazuke. Antzera bateko interesak dituen jendea topatu dezakezu", gaineratu du.

Ligatzeko aplikazioak orain urte batzuk sortu ziren eta Durangaldean ere modu naturalean erroto direla dirudi. Etorrizuneko hartu-emanen norabidea ote?

LIGATZEA • EKAITZ HERRERA

Lehen, erromerian; gero, diskotekan. Eta orain, Interneteko sare sozialetan. Hortxe dago *merkatua*, hortxe gaur egungo *ligodromo*. Telefono mugikorraren bitartez ligatzeko joera geroago eta zabaldago dagoela dirudi, eta askok jendea ezagutzeko aplikazioetara jota bilatzen dituzte hitzorduak. "Geroago eta joera handiagoa dugu horrelako aplikazioak erabiltzeko, eta badirudi aurreiritziak alde batera uzten gabiltzala. Lehen, erreparoa eman zezakeen baten bat mugikorrek aplikazioen bitartez ezagutu zenuela esateak. Orain, hori guzti hori normalizatuago eta onartuago dago", dio Leire Zubizarreta psikologo eta sexologoak (Azkoitia, 1995). Bera eta Itsaso Cañada (Irun, 1988) Lahia 3.0 Sexologia

eta Hezkidetzak elkarteak kideak dira. Besteak beste, sexologiari lotutako aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute Abadiñon, AbadiñoSex izenpean.

Teknologia berrien eraginez, ugaritu egin dira hartu-emanak bilatzeko tresnak, baina horrek ez du esan gura ligatzea bera asko aldatu denik. Cañadak eta Zubizarretak paralelismo bat egin dute tabernetan aurkitu daitekeenaren eta sarean aurkitu daitekeenaren artean. "Parranda batean hainbat pertsona topatzen dugu, eta aplikazio hauetan ere gauza bera gertatzen da. Denerik topatu dezakezu. Batzuek berba baino ez dute egin gura. Beste batzuek bizi osorako hartu-eman bat bilatzen dute. Eta badira egun bakar bateko sexua bilatzen dutenak ere", dio Cañadak. "Aplikazioe-

tan baten batez konexioa lortzen baduzu, elkar ezagutze hori kalera eramaten da gero", gaineratu du Zubizarretak.

Instagram ere bai

Aplikazioen artean Tinder da zabaldueña (hortik erreportaje honen

"Hartu-eman luze bat, egun bakarreko sexua edo berba egitea bakarrik gura dutenak topatu daitezke"

izenburua). Baina horrek ez du esan gura bakarra denik. Gustu guztietarako aplikazioak topatu daitezke sarean. Hona hemen izen batzuk:

Wapa, Grindr, Meetic edo Lovoo. Dena dela, Cañadak Instagram ere kokatuko luke zerrenda horretan. "Instagramek garrantzi handia du, batez ere, gazteagoen artean. Adibidez, DBHko ikasleen artean gehiago ligatzen da Instagram edo Tik Tok erabilia. Tinderrri buruz oso komentario gutxi egiten dizkigute", dio. Horren arrazoia aplikazioak erabili ahal izateko adina litzateke, hamazortzi urte eduki behar direlako Tinder erabiltzeko.

Lerrook irakurrita baten bati aplikazioen bat erabiltzeko grina sartzen bazaio, ohar txiki bat: bilaketa egiterakoan ezezaguna zaion jende asko topatuko du, baina baliteke ezagunen batez ere topo egitea. Demagun auzokideagaz, herrikide batez edo bistaz baino ezagutzen ez duen norbategaz.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko urtarrilaren 29a
19. urtea - 836. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Tinder?, baina zer da Tinder?

.....

Ligatzeko aplikazioak telefono mugikorrean instalatzen diren tresnak dira. Bertan, erabiltzaile bakoitzak profil bat sortzen du bere burua aurkezteko; normalean, argazki batzuekin eta deskribapen labur batez lagunduta. Gero, norbere interesen arabera bilaketa egiten da. Horretarako, bilatzen den hartu-eman mota eta adin-tartea zehazten dira. Aplikazioak geolokalizazio sistema du. Hau da, beste erabiltzaileak norberagandik zenbat distantziara dagoen adierazten du, gutxi gorabehera.



Tinder.

Ligatzeko aplikaziorik entzutetsuena da. Seguruena, zabalduena ere bai. Bertan, hartu-eman motarik gehienek dute tokia. Bai heterosexualek eta baita sexu-harreman ez normatiboa bilatzen dutenak ere. Hori bai, erabiltzaile biren arteko elkarrizketa hasteko, ezinbestekoa da alde biek elkarrenganako interesa agertzea.



Wapa.

Nagusiki, sexu hartu-eman ez normatiboak emakumeekin izatea gura dutenei begirakoa da. Elkarrizketak zuzenean hasi daitezke erabiltzaileen artean.



Grindr.

Nagusiki, sexu hartu-eman ez normatiboak gizonezkoekin izatea gura dutenei begirako aplikazioa da. Elkarrizketak zuzenean hasi daitezke erabiltzaileen artean.



Kaixomaitia.

Bertakoa. Euskaldunek euskaldunentzat sortua. Hartu-eman euskaraz gura dutenei begirako aplikazioa da. Bertan, hartu-eman mota guztiek dute tokia.

“Tabernetara joan ezin denez, orain jende asko dabil Tinder erabiltzen hartu-eman izateko”

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Ainhoa Gil Ruizek (Abadiño, 1988) urteak daramatza ligatzeko aplikazioak erabiltzen. Bai jendea ezagutzeko eta bai sexua bilatzeko, Tinder erabili izan du gehienbat. Marraskilaria denez, lanerako inspirazio iturri modura ere erabili izan du. Ainhoa GoGreen da bere izen artistikoa.

Noiz hasi zinen Tinder erabiltzen?

Tinder baino lehen Badoo erabiltzen nuen. Orduan ez zegoen hainbesteko ohiturarik horrelako tresnak erabiltzeko. Esango nuke txarto ikusita ere bazegoela. Gero, bikotekideagaz ia urte biko hartu-eman amaitutakoan, Tinderek ospea hartu zuela igarri nuen. Bilbora etorri nintzenean erabaki nuen Tinder erabiltzea. Gaur egun normalizatu egin dela iruditzen zait. Oso zabaldua dago.

Zer bilatzen zenuen aplikazioagaz?

Gehienbat, jendea ezagutzea; nahiz eta sexuaren faktore hori beti egon den hor. Iruditzen zait hor heziketa lan bat egin behar dugula. Askotan gertatu zait baten batez txateatzen hasi, *Kaixo, zelan?* galde-tu eta erantzun lez ia sexurik gura ote dudana galdetzea. Horrek min egiten du. Lagunei komentatzen nien eta esaten zidaten ea zer uste nuen, Tinder hori zela. Badirudi jarrera batzuk normalizatu egin direla eta oso erraza da hor jaustea. Jendeak uste du sexu bila zoazela bakarrik. Bai, gehienbat sexua bi-



latzen da, baina badira beste mota bateko erlazioa bilatzen dutenak.

Beti zabilta aplikazioa ipini-kendu, ipini-kendu.

Bai, azken bolada honetan kenduta daukat. Izan ere, interesgarria den baten bat ezagutzeko gogoia sartzen zaidan aldiro aspertuta amaitzen dut. Denbora tarte bat hartzen duzu jendea ezagutzeko, berba egiteko, baina nekatu egiten zara. Gainera, orain, tabernetara joan ezin denez, jende asko dabil Tinder erabiltzen. Ni kontrakoa egiten nabil, handik kanpora egoten ahalgintzen.

Tabernek ateak itxi beharrendo, Tinderren jende gehiago dabilela igarri duzu?

Bai, baina ez hori bakarrik. Konfinamenduan zehar nabarmendu egin da iraupen luzeagoko hartu-eman bilatzeko joera. Erlazionatzeko modua aldatu egin denez, orain sexua bakarrik ez, beste zerbait ere bilatzen dela esango nuke. Konfinamenduan lan baterako berrinstalatu nuen aplikazioa eta sentipen hori izan nuen.

Erabili izan duzu Tinder ez den beste aplikaziorik?

Aspaldi, *Adopta un tío* aplikazioa

erabili nuen. Lovoo erabili izan dut. Bumble ere bai. Instagram gustuko dut, baina, adibidez, ez daukat Tik Tok konturik. Marketing ikasketak ere egin ditudanez, gustatzen zait horrelako gauzak ezagutzea.

Koronabirusa hor zehar ibili arren, jendeak hartu-emanak sortzen jarraitzen du?

Baietz esango nuke. Gogoan dut, aurrekoan, lagun batzuen estudioan entzundakoa. Ikasleen egoitza batean elkar musuka ikusi zuten bikote bat, bakoitzak ahoan maskara ipinita zuela.

"Babes neurri guztiak beteko bagenitu, sexu hartu-emanak izateko modu bakarra bikotekideagaz bizitzea litzateke"

Koronabirusaren aroan, hartu-eman sozial guztiak murriztu diren neurri berean murriztu dira hartu-eman afektibo-sexualak



HARTU-EMANAK • EKAITZ HERRERA

Onartu dezagun. Ez da ligatzeko sasoirik onena. Hartu-eman sozialak gutxitu diren neurri berean gutxitu dira hartu-eman afektibo-sexualak. Eta badirudi halantxik izango dela zati baterako. "Hartu-eman guztiak bigarren plano batean geratu dira, eta ez dakigu honek guzti honek zein ondorio ekarriko dituen epe luzera", diote AbadiñoSex zerbitzua eskaintzen duten Itsaso Cañadak eta Leire Zubizarretak. "Momentu honetan hartu-eman afektibo-sexualak asea izateko, zure bikotekide egonkorragaz bizi behar duzu", dio Zubizarretak. "Eta, beraz, hartu-eman monogamikoak baino ezin dituzu izan", gaineratu du Cañadak. Eta, jakina, hori guztia bikotekidea izanez gero, bikoteki-


deagaz biziz gero, eta, asko jota, bikotekidea udalerrri berean biziz gero.

Bestalde, sexuaren bitartez transmititutako gaixotasunen zerrendako beste bat bihurtu da koronabirusa. "Ez dakit momentu honetan sexu segururik existitzen ote den. Eskatzen dizkiguten babes neurriak guztiz beteko bagenitu, sexu hartu-eman izateko aukera bakarra zure bikotekideagaz bizitzea litzateke. Bestalde, ez da ahaztu behar koronabirusa baino lehen ere bazirela sexu arriskuak, eta horiek hor egonda ere, jende askok ez zuela kondoirik erabiltzen. Honeguz ere antzekoa da. Hartu-eman izaterako momentuan maskara kentzen duenak bere gain hartzen du gaitza hartzeko arriskua", azaldu du Itsaso Cañadak.


Positibo kopurua Durangaldean (PCR positiboak)

Urtarrilean eskualdean egunka atzemandako positiboak

PCR positiboak



Durangaldeko intzidentzia tasa



Neurri murriztaile eta guzti ere, intzidentzia tasak kezkagarria izaten jarraitzen du Durangaldeko herri askotan

Intzidentzia tasak gorantz egin du Durangon, Elorrian eta lurretan; Gainera, Berrizen, Zaldibarren eta Atxondon ostalaritza itxita dago gaurtik aurrera

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Azkenaldian birusaren hedapenari aurre egiteko hartu diren neurriek ez dute itxaroten zen efektua eragin oraingoz. Beharbada egun gehiago beharko dira neurrien benetako eraginkortasuna ikusteko. Bestalde, Zornotzan intzidentzia tasak beheranzko joera hartu du, baina, gaur gaurkoz eta orokorrean, datuak ez dira onak Durangaldean. Horren adibide da gaurtik ostalaritza itxita dagoela baita Zaldibarren, Berrizen eta Atxondon ere, azken egunetan positibo kasuek eta intzidentzia tasak gora egin eta gero.

Gogoratu behar da astelehenetik indarrean daudela Jaurlearitzak Euskal Autonomia Erkidegoko herri guztietan ezarritako neurri murriztaile berriak: udalerrien konfinamendua eta gehienez lau pertsona elkartzeko aukera.

Horrez gainera, Durangon, Zornotzan, lurretan eta Elorrian oraindino neurri murriztaileagoak daude indarrean, eremu gorrian daudelako; hau da, azken hamalau egunetako datuak kontuan hartuta, 100.000 biztanleko 499 kutsa-



Durangon, Zornotzan, Elorrian, lurretan, Berrizen, Zaldibarren eta Atxondon gainerako herrietan baino neurri murriztaileagoak dituzte.

tu baino gehiago dituzte; bestela esanda, intzidentzia tasa 500etik gorakoa da.

Neurriak neurri, intzidentzia tasak gora egin du Durangon, Elorrian eta lurretan joan zen bariketik atzora. Durangon 994koa zen aurreko barikuan eta atzo 1.337an

zegoen; lurretan 840tik 1.355era igaro da eta igoyerarik leunena Elorriok izan du: 550etik 617ra.

Datuen alderdi positiboagoa Zornotzan aurkitzen dugu. Intzidentzia tasak behera egin du egunero, eta 990ean kokatu da; joan zen barikuan 1.249koa zen. Hala

ere, oraindino ia bikoiztu egiten du eremu gorritik irten ahal izateko gutxieneko tasa.

5.000 bizlantetik gora dituzten eskualdeko herri guztien errepasoa amaitzeko, honako hauek dira Abadiñoeko datuak: atzo 477an zegoen intzidentzia tasa; barikuan


335koa zen. Beraz, Abadiño eremu gorriaren atarian zegoen atzo.

Otxandion estu ibili dira, baina ematen du hirugarren olatuaren kolperik gogorrena gainditzen dabilzala. Gorago aipatutako hiru

Egoerak hobera egin du Otxandion, eta urtarrilaren 16tik hona ez da kasu positiborik egon

herrien antzera, Otxandion ere ostalaritzak ateak itxi behar izan ditu astebetean, urtarrilaren 19tik 26ra. Baina urtarrilaren 16tik hona herrian kasu positiborik atzeman ez denez eta intzidentzia tasak behera egin duenez —959tik 295era astebetean—, Jaurlearitzak neurri bereziak aplikatu beharreko herrien zerrendatik atera du. Edozelan ere, udalak ez erlaxatzeko eskatu du eta tabernetako segurtasun neurriak betetzeko gogoratu du: asko jota, lau lagun mahai bakoitzean, maskara jateko eta edateko soilik kentzea, barran ez kontsumitzea...

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**

Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Optometria**
PSE: 162/13

Naia
Zabala
Azumendi
11587 kol. zk.



keinu

- Optometriari teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptomietriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO

Podologia
klinika

Goiatz Murua
kol. zbk.147
Ainhua Elorza
kol.zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728



Unax eta Iker Unzalu, Launa upategiko kudeatzaileak.

Launa upategiko ardo guztiak nazioartean erreferente

Launa upategiko ardo guztiak puntuazio bikaina lortu dute Peñin Gida entzutetsuan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Espainiar estatuan ekoiztu eta merkaturatzeko diren 10.500 ardotik gora jasotzen ditu Peñin Gidak 2021ean. Nazioartean erreferentea den gida da eta, aurten, Launa upategiko ardoek puntuazio bikaina lortu dute bertan. Launa familia bodegako kideak "pozarren" daude lortu duten emaitzagaz. "Oso pozik gaude gure ardoek lortutako puntuazioagaz. Peñin Gida gida erreferentea da nazioartean, eragin handia duena", adierazi du Unax Unzalu Launa upategiko kideak.

Launak Berrizen du egoitza, eta han dute upategiko ardo guztiak 90 puntutik gorako balorazioa jaso dute. "Ardo bakar batek ere ez du bikain puntuazioa lortu, baina denek 90 puntutik gorako puntuazioa izan dute. Hori oso garrantzitsua da guretzat, gure bodegan

Unax Unzalu dio Peñin Gida "erakusleiko bikaina" dela Launa upategiko ardoentzat

egiten den lana bikaina dela esan gura du eta", esan du Unzalu.

Erakusleiko bikaina

Pandemiaren eraginez, beste hainbat sektoretan lez, upategiak ere garai zailak bizitzen ari dira. "Gure bodega beti egon da ostalaritza, jate eta denda berezietan zentratuta. Eta beste hainbat proiekturi lez, guri ere izugarri eragin digu", gaineratu du Launako kideak. Hala ere, argitu du egoera hau ere pasatuko dela eta Peñin Gida "erakusleiko bikaina" izango dela Launa upategiarentzat.

Vakasa mertzeria, enpresa proiektuen lehiaketan irabazle

Iurretako Udalak emandako 6.000 euroko sariaren lehenengo zatia eman diote, asteon, proiektuan laguntzeko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Vakasa mertzeriako Mari Carmen Ordoñez Delgadok 6.000 euroko saria lortu du Iurretako XII. Enpresa Proiektuen Lehiaketa irabazita. Udalak sariaren lehenengo zatia eman dio asteon. Mertzeria gaiak eta haurrentzako arropa saltzen dituzte Frai Juan Askondo kalean zabalduak Vakasa mertzerian. Arropa josi eta konpondu ere egiten dute.

Enpresa proiektuen lehiaketak ekimen ekintzaileak bultzatzea

du helburu, eta Iurretako herrigunean enpresa propioa sortuz lanean hastea erabakitzen dutenei bidea erraztea, udal arduradunek ohar batean gogoratu dutenez. Era berean, herrigunean "espiritu ekintzailea" sustatu gura du udalak, "Iurretaren etorkizun komertziala inguruan bertan garatu daitezkeen ideia berritzaileetan oinarritzeko aukera egon dadin", azaldu dutenez. Urtebete igaro ondoren emango dio udalak sariaren gainerako zatia.



Iñaki Totorikaguena alkatea eta Mari Carmen Ordoñez Vakasa mertzeriako kidea.

Udan Elorrioko eskola publikoko patioa modu integralean eraberritu eta estalkia ipiniko diote

Udalak Hezkuntza Komunitate osoagaz landu du proiektua eta 265.000 euroko aurrekontua duela azaldu dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak estalkia ipiniko du eskola publikoko patioan udan. Udaletik azaldu dutenez, urte gatxa izan arren eta aurrekontu-kreditu murriztuek baldintzatuta egon arren, aurrera jarraitzen dute estalkia ipintzeko konpromisoagaz. Proiektua Hezkuntza Komunitate osoagaz "lankidetzan" garatu dute, eta euren proposamen "guztiak" kontuan hartu dira.

"Epeak betetzen badira, udan hasiko dira patioa estalki berria instalatzen", adierazi du Maria Herrero alkateordeak. "Elorriorentzat oso proiektu garrantzitsua da; izan ere, jolastokia eraldatzeko plana gauzatuta, jolasgune inklusiboa, egokitua eta etorkizunera begira egongo dena lortzeko beharrezkoa

den eskaerari erantzungo diogu", jarraitu du alkateordeak.

Lanek 265.000 euroko aurrekontua dute, eta uda honetan hastea aurreikusten dute, ikasturte

Udalak azaldu du Hezkuntza Komunitate osoaren proposamenak kontuan hartu direla

amaieran, oporraldia hasteagaz batera. Lanok eskola publikoko patioa eraldatzeko planaren lehenengo fasean sartzen dira. Patioa estaltzeaz gainera, lehenengo fasean txintxaun berriak ipiniko dituzte eta zoladura aldatuko dute.



Udan ipiniko dute aterpea eskolako patioan.

Atxondoko Udalak bost euroko deskontu bonuak banatuko ditu herritarren artean

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak 10.000 euroko diru partida ipiniko du herriko komertzioak bultzatu eta herritarren artean deskontu bonuak banatzeko. Txartelak udaletxean jaso beharko dira, otsailaren 8tik aurrera. Pertsona bakoitzak txartel bi jaso ahaliko ditu eta 2021eko abenduaren 31ra arte erabili ahal izango ditu.

"Udalerriko ekonomia sustatzea da gure helburua, gure merkataria eta ostalariei laguntzea, herriko merkataritza sustatzea, eta, aldi berean, herritarren laguntzen jarraitzea", adierazi du Xabier Azkarate alkateak. Bestalde, udaletik azaldu dute deskontu bonuak ezinongo direla erabili edari alkohol-dunak eta tabakoa erosteko.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto

Mendiolako eskola zaharraren kudeaketa 2026ra arte Errekatxoren esku jarraitzea erabaki du Abadiñoko udalbatzak

Mozioak EH Bilduko zinegotzien aldeko botoekin aurrera egin zuen; EAJk aurka bozkatu zuen, AI abstenitu egin zen

ABADIÑO • A.M.

Azken udalbatzarrean, EH Bilduko mozioa aurkeztu zuen Abadiñoko Udalak eta Errekatxo elkarteak Mendiolako eskola zaharren eraikina erabiltzeko duten hitzarmena beste bost urtez luzatzea eskatzeko. EH Bilduren bost ordezkarien aldeko botoekin onartu zen mozioa. Honenbestez, Errekatxo elkarteak 2026ko urtarrilera arte kargu egingo da eskola zaharreko kudeaketaz. Abadiñoko Independenteen ordezkariak abstenitu egin ziren eta EAJk aurka bozkatu zuen. "30 urtean, Errekatxo elkarteak ondo egin du bere lana, ondo zaindu dituzte eraikina eta inguruak, besteak beste, eta hori nabarmendu egin behar dela uste dugu", azaldu zuen Unzalu Salterain EH Bilduko zinegotziak.

Abadiñoko Udalak eta Mendiolako Errekatxo elkarteak hitzarmena sinatu zuten 1988ko abenduan, eskola zaharren eraikina elkarteak erabili zezan. Iaz, hitzarmena mugagabea izateko eskaria

egin zuen elkarteak, EH Bilduren esanetan. Horren ondoren, udaleko idazkariak txosten bat egin zuen, "gune publiko bat elkarte bati uzteak justifikazio berezi bat behar zuela argudiatuz", koalizio subiranistak esandakoaren arabera. Hain zuzen ere, EAJk ezetz bozkatu zuen, behin betiko txostena jaso arte ez duela erabakiko argudiatuz. "Errekatxok eginiko ekarpena handia da, auzoa bizirik mantentzen lagundu du. Baina dugu hitzarmena bost urtekoa izan daitekeen. Txosten berria jaso artean ez dugu erabakiko", azaldu zuen Mikel Garaizabal alkateak; mozioaren bozketa txostena jaso arte atzeratzeko proposatu zuen aurretik. Javi Crespo alkateordeak (AI) ere Errekatxoren lana goraiatu zuen, eta abstenitu egin ziren bozketan. "Ulertzen dugu kontratua berritu egin behar dela, izan ere, egungoak urte asko ditu. Errekatxok ekarpen handia egin dio auzoari, eta auzoa batzeko egin duen lana ere handia da. Horre-



Mendiolako eskola zaharren eraikina.

Abadiñoko Udalak eta Errekatxo elkarteak 1988ko abenduan sinatu zuten egungo hitzarmena

gaitik, abstenitzea erabaki dugu", esan zuen.

Hausnarketarako denbora

EH Bilduko Unzalu Salterainen esanetan, eraikina elkartearen esku bost urterako uzteko eskariaren arrazoia "eraginkortasuna" da.

"Proiektuari buruzko hausnarketak integrala izan behar du. Udalak, elkarteak eta herritarrok hausnartu behar dugu. Eraikina uztea ez da eskusiboa, eta erabiltzeaz gainera, eraikina eta inguruak ere zaindu egiten dira, besteak beste. Auzoaren ardatz soziala da", gaineratu zuen.

URA Agentziak askotariko zuhaitzak landatu ditu Izurtzatik doan errekan

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

URA Agentziak erreka inguruko landaredia birpopulatzeko duen planaren barruan, askotariko zuhaitzak landatu ditu azken egunetan Izurtzan.

Erreka inguruko landaredia birpopulatzeko planaren barruan landatu dituzte zuhaitz landareak

Hain zuzen ere, frontoi osteko aparkalekuaren ondoan dagoen erreka zatia garbitu eta bertan sartu dituzte zuhaitz landareak. Errekaren alde bietan lizarra landareak landatu dituzte. Landare bakoitzari babes bat ipini diote gehiago hazi bitartean.



Mirugain taldeak mendiko lizentziak egiteko aukera eskainiko du Otxandion

OTXANDIO • J.D.

Urte berriagaz batera, mendiko lizentziak eta aseguruak egiteko epea hasten da mendizale askorentzat. Otxandioko Mirugain Mendigoizale Elkarteak laguntza eskaintzen du kudeaketa hori egiteko. Otsai-

Ohiko moduan, prezio desberdinak daude, adinaren zein estaldura motaren arabera

letik aurrera, astelehenetan, 19:00etatik 20:30era, eskainiko dute lizentziak egiteko aukera. Ohiko moduan, prezio desberdinak daude adinaren arabera (umeak, gazteak, helduak, 65 urtetik gorakoak...) eta estaldura motaren arabera.

Horrez gainera, federatzeko interesa dutenek otsailaren 22an, martxoaren 22an, apirilaren 19an eta maiatzaren 24an izango dute horretarako aukera.



Mallabiko enpresa txikiei doako aholkularitza zerbitzua eskainiko diete

Debabarrena Garapen Agentziak eskaintzen duen zerbitzua doakoa da eta Mallabian ere jaso daiteke; autonomoei eta 10 langiletik beherako enpresei zuzenduta dago

MALLABIA • J.D.

COVID-19ak zailtasun ekonomikoak ekarri dizkie langile autonomo eta enpresa txiki askori eta eurei aholkularitza eskaini gura die doako zerbitzuak. Gaur egungo egoeraren azterketa bat egingo dute eta hobetzeko ekintzak identifikatuko dituzte. Horrez gaine-

ra, etorkizuneko beharrianak asetzeko eskuragai dauden diru laguntzak eta laguntza programen inguruko informazioa eskainiko dizkiete. Denek arreta pertsonalizatua jasoko dute. Zerbitzua jasotzeko interesa dutenek ekintzaille@debegea.eus helbidera idatzi dezakete apirila baino lehenago.

Verter enpresak "zorrotasun handiagoa" eskatu dio Jaurlaritzaren ebazpenari

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko zabortegea amildu ondoren izandako ingurumen kalteen arduraduna Verter Recycling enpresa dela ondorioztatu du Eusko Jaurlaritzak iazko martxoaren 4an zabaldutako ingurumen espedientean. Honen arabera, Verter lur azpiko uretan, erreketako uretan eta lurrazal gainean egondako ingurumen kalteen erantzule litzateke, amiltzea gertatu zenean "instalazioen operadorea" bera zelako. Enpresak, baina,

Enpresaren iritzian, "erantzukizunak esleitzeko ezarritako baldintzak ez dira betetzen"

"zorrotasun handiagoa" eskatu dio Jaurlaritzari. "Ingurumen Erantzukizuneko Legean erantzukizunak esleitzeko ezarritako baldintzak ez dira betetzen", azaldu dute.

Mañariko dendaren kudeaketa lehiaketa publikora ateratu dute

Martitzeneko udalbatzarrean aho batez onartu zuten esleipena arautuko duen baldintza-ordria



MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

40 urtean Mañariko denda kudeatu duen Rafa Bizkarrak erretiroa hartuko du otsailean, eta Mañariko Udala bere erreleboaren bila dabil, herrian dagoen tankera horretako denda bakarra delako. Martitzenean dendaren kudeaketa arautuko duen baldintza-ordria aho batez onartu dute udalbatzarrean.

Lehiaketa publikoa abian dago dagoeneko eta otsailaren 11ra artekoa da proposamenak aurkezteko epea. Kontratuaren iraupena lau

urtekoa izango da. Etorkizuneko dendak elikadurako oinarriko produktuak (fruta, barazkiak, haragia, ogia, esnea...) eta garbiketakoak salduko ditu; baita 0km-ko eta sasoiko produktuak ere, "ahal den neurrian", baldintza orrian zehazten denez. Horrez gainera, produktu ekologikoak saltzea gomendatzen dute. Gomendioen artean, zerbitzu gehigarriak sartzen dira, hala nola whatsapp bidezko eskaerak.

Bezeroei arreta eskaintzen dieten langileek zerbitzua euskaraz emateko kapaz izan behar dute. Eskatutako mailarik izan ezean urtebeteko epea izango dute ikasteko. Denda astelehenetik barikura goizez zein arratsaldez egongo da zabalik, eta baita zapatu goizetan ere, oinarrietan jasotzen denez.

Politikan

Neskutz Rodriguez
Herriaren Eskubidea



Usainak eta zapoak

Bizi garen mundu globalizatuan, elikadura-industria handiei esker, munduko ia edozein tokitako frutak eta barazkiak kontsumitu ditzakegu edozein sasotian. Hala ere, argi daukagu ingurumen-kostuak handitzen diren bitartean, kalitatea, zaporea eta mantenuak jaisten direla. Batzuetan, denbora faltagatik, erosotasunagatik eta behar dugun guztia leku baten eskura daukagutako, saltoki handietan egiten ditugu erosketak. Ez dut ukatuko ni ere supermerkatuetara joaten naizela.

Baina ahal dudan guztietan, baserriaren azokara edo Durangoko kontsumo kooperatibara joaten naiz, batez ere barazkiak eta fruta erostera. Espazio horiek oso sentzazio atseginak sortzen dizkirate. Alde batetik, erosle-saltzaileen marmarra eta auzokideen arteko topaketa kasualak, esperientziak partekatuz, eta, bestetik, elikagai freskoen eta sasoiko elikagaien usainen nahasketa (eta zapoak nire buruan ere bai).

Eta, batez ere, hiru arrazoirengatik egiten dut:

Lehena, jendearen ustearren kontra, sasoiko produktuak merkeagoak izaten direlako, banaketa zuzena delako, garraio- eta biltegitratze-kostuak murriztuz.

Bigarrena, tokiko ekoizle txikiak eta tokiko ekonomia eta garapenari laguntzeko neurria delako.

Eta hirugarrena, ingurumenari mesede egiten diolako. Produktuak modu jasangarrian landatzen dira, eta garraio-distantziak askoz txikiagoak direnez, emisioak murrizten dira.

Eta emisioen murrizketei buruz ari garela, eta 2021ean mugikortasun murriztuarekin jarraituko dugunez, tokiko eta sasoiko produktuak kontsumitzera animatzen zaituztegu, horretarako ez baitugu herritik irten behar.

Durangaldea asteen

Larreko kiroldegian aurretiazko hitzordua eskatzeko aplikazioa sortu dute

Zornotza | Zornotzako Udalak aplikazioa kaleratu du Larreko kiroldegian erreserbak egiteko. Fitness gelarako eta igerileku handirako erreserbak egin ahalko dira. amorebieta-etxano.eus web orrira edo amextx.eus orrira sartu eta kirolari dagokion atalera jo beharko da. Aurrez aurreko erreserbak kiroldegian edo 946732714 telefono zenbakira deituta egin daitezke.

Galdakaoko ospitaleak emandako ohe ginekologikoa eta ekografoak Senegalera

Durangaldea | La Otra Mirada elkarteak proiektu bat baino gehiago garatzen du Senegalen. Euretari bat Sare Nagen (Nemataba eskualdea) egiten dabilzan amatasun-ospitalea da. Galdakaoko ospitaleak emandako esku-ohea, ohe ginekologikoa eta ekografoak hara bidali dituzte. Materiala eurek eraman gura zuten, baina ambulanzian batean bidaliko dute.

Koronabirusagaitik lana galdu duten pertsonentzako zerbitzua Behargintzan

Durangaldea | Mankomunitateak enplegu-programa bat martxan ipini du koronabirusaren eraginez lana galdu dutenentzat. Egitasmoa Bizkaiko Foru Aldundiaren '3R' programaren barruan dago. Lan mundura berbideratzeko laguntza, orientazioa eta aholkularitza eskaintzen dituzte. Bestalde, martxotik aurrera gaitasun digitalei buruzko hiru ikastaro eskainiko dituzte. Oinarriko maila, tarteko maila eta maila aurreratuko ikastaroak izango dira.



Andereak elkarteak gazteei zuzendutako kanpaina abiatu du sare sozialetan

Durango | Andereak elkarteak lehiaketa kutsuko kanpaina bat du martxan sare sozialetan, nerabe eta gazteak indarkeria matxistaren inguruan kontzientziatzeko. Lehiaketa honetarako, argazkiak edo bideoak bidali behar dira. Irudiek elkarte (@andereakdurango) etiketatuta beharko dute Instagramen eta Twitterren, eta (Andereak Elkarte) Facebooken. #AurreEginIndarkeriaMatxistari traola gehitu beharko zaio. Lehiaketako sariak hiru erosketa-txartel izango dira, Durangoko saltokietan gastatzekoak, bat 150 eurokoa eta beste bi 75ekoak. Bestalde, elkarteak 18:30era aurreratuta du eguenetako elkarretaratzea.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiourne, 8 IURRETA

946 202 768

Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO

944 071 791 - 692 859 779

BODEGUILLA



TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85




Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



LABIRINTOA



Zein bide hartuta harrapatuko du lapurra?



BIKIAK

Arrautza hauek guztiek euren bikia daukate.
Bazara gai denak topatzeko?



DIFERENTZIAK

Topatu zazpi diferentziak.





'ALPHA' ANTZERKIA DURANGALDEA :: Urtarrila eta otsaila

Gansoren antzezlan Berrizen eta Zornotzan ikusgai

Lo egitea beharizan fisiologiko bat da. Egunero errepikatzen dugun errutina, gehienetan atsegina. Lo egiten dugunean, gure subkontzienteak atea erdi zabalik uzten du, bidea libre utziz amets ilunei, ahaztutako oroitzapenei edo gura bako

fantasiei. *Alphak* kontzientziatik ametsen mundura igarotzeko une hori islatzen du. Bere fantasien biktima den pertsonaia baten bizipen komikoak kontatzen dizkigu, beldur eta sentimendu unibertsalei buruz barre egiteko aukera eskainiz.

Urtarrilaren 29an

IURRETA ipuin kontalaria
'Zer gertatzen da basoan?' (Maider Alcelay),
17:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Hiru urtetik bost urtera bitarteko umeentzat, heldu batek lagunduta. Bigarren saio bat egongo da sei urtetik gorako umeentzat, 17:45ean.

ELORRIO antzerkia
'La Isla' (Histrion Teatro),
19:00etan, Arriola antzokian.

Urtarrilaren 30ean

BERRIZ ipuinak
Ipuin txokoa:
'Elefante bitxi bat' (Rosa Martinez),
12:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

BERRIZ antzerkia
'La Isla' (Histrion Teatro),
19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ZORNOTZA antzerkia
'Alpha' (Ganso&Cia konpainia),
18:00etan, Zornotza Aretoan.

Urtarrilaren 31n

DURANGO antzerkia
'La Isla' (Histrion Teatro),
19:00etan, San Agustin kulturgunean.

Otsailaren 5ean

BERRIZ antzerkia
'Alpha' (Ganso&Cia konpainia), 17:00etan,
Berrizko Kultur Etxean.

Otsailaren 6an

DURANGO ikuskizuna
'Burdina-Hierro' (Adriana Bilbao eta Beñat Achiary),
19:00etan, San Agustin kulturgunean.
Dantza eta musika ikuskizuna.

ELORRIO musika
Elorrixoko Gaztetxearen 33. urteurrena: Nahinota + Fitonskis,
18:00etan, Elorrixoko Gaztetxean.

ZORNOTZA antzerkia
'Sagutxu tuntuna',
18:00etan, Zornotza Aretoan. 2tik 6 urtera bitarteko umei zuzendutako ikuskizuna.

Otsailaren 11n

DURANGO deialdia
Irakurzale kluba euskaraz, 18:00etatik 19:30era, Bizenta Mogel bibliotekan. Otsailaren 11n hasita, hileko bigarren egunetan. Izena emateko epea zabaldu dute: biblioteka@durango.eus posta elektronikora idatziz edota 94 603 00 41 telefono zenbakira deituta. Whatsapp bidez ere eman daiteke izena Berbalagunen 639 400 786 telefono zenbakira deituta.

Martxoaren 14ra arte

DURANGO erakusketa
'Alegiazko paisaiak eta ironiaren irudiak' (Ramon Zuriarrainen margolanak),
Arte eta Historia Museoan.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Los Croods. Una nueva era**
barikua 29: 17:00
domeka 31: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Noticias del gran mundo**
barikua 29: 19:00
zapateria 30: 17:15/19:00
domeka 31: 17:15/19:00
astelehena 1: 18:30
martitzena 2: 19:00
eguztana 3: 18:00

• **Mi niña**
barikua 29: 19:00
zapateria 30: 17:00/19:30
domeka 31: 17:00/19:30
astelehena 1: 17:15/19:15
martitzena 2: 19:00
eguztana 3: 18:00

• **Crash**
barikua 29: 19:00
zapateria 30: 19:00
domeka 31: 19:00
astelehena 1: 17:15/19:15
martitzena 2: 19:00
eguztana 3: 18:00

• **Mi amigo pony**
zapateria 30: 17:00
domeka 31: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Cómo sobrevivir en un mundo material**
zapateria 30: 19:00
domeka 31: 19:00
astelehena 1: 19:00

• **Dragoiaren gidaria**
domeka 31: 16:00

:: Zornotza ARETOA

• **Manual de la buena esposa**
barikua 29: 19:00
astelehena 1: 19:00



“Sexua bideratzen ari dela esango nuke, eta irekiagoa izan beharko litzateke”

Maddi Loiti elorriarrak 'Posible al da kea kateatzea?' liburu erotikoa kaleratu du; irakurlea erotikara hurbiltzea du helburu



Maddi Loiti Mendizabal
'Posible al da kea kateatzea?'-ren egilea
Elorrio | 1999

SAIAKERA • ARITZ MALDONADO
Maddi Loiti elorriarrak 'Posible al da kea kateatzea?' liburu kaleratu du, bere kabuz. 'Zuk Zeuk Egin' filosofiari jarraituz, berak egin ditu bertan ageri diren marrazki, ariketa eta hausnarketak. Baina lanak badu bere izaera kolektiboa ere. Dozenaka lagun en esperientzia eta argazkiak ere ageri dira liburuan. 100 bat lagun bizipenak batu

ditu liburu orrietan zehar, erotikara hurbiltzeaz gainera norbere buruagaz bizitzeko moduz hausnartzeko.

Nondik dator liburu egiteko ideia?
Hezkuntza emozionala eta sexuala lantzen dituen ikastaro bat egin nuen. Bertako amaiera lanerako, galdetegi bat prestatu nuen eta hogeita hamahiru lagunek

erantzun zuten. Gutxi iruditu zitzaizkidan hasieran, baina irakasleak ondo zegoela esan zidan, ez zela ohikoena hainbeste erantzun jasotzea. Emaizta politek irten zuten, bigarren saiakera bat egitea pentsatu nuen, gehiago zabaltzeko; sare sozialak erabili nituen horretarako. Berrogeialdian alboratu egin nuen gaia, baina berriro ekin nion haren

ondoren. Galdetegiagaz fanzine bat egitera animatu ninduen lagun batek, eta gero zer gehitu pentsatu nuen. Azkenean, poesia, marrazkiak, argazkiak eta hausnarketak batu ditut.

Ez nuen erotikagaz loturiko zerbait gura bakarrik. Gorputza lantzea ere gura nuen, potolofobiaren edo aurreiritzien gaiak. Nik prozesu bat bizi izan nuen gai horiek lantzen, eta horrek izugarri lagundu zidan; hortaz, liburu ariketak nire lagunentzat egin nituen. Lagun taldean potentzia izugarria izan zuten, beharbada liburuan galdu egiten dena apurtxo bat, baina ekarpen hori egin gura nuen, ahal den neurrian jendeari laguntzeko. Liburuan deneriko iritziak batzen dira eta hori interesgarria da. Batzuentzat lotsagarria dena beste batzuentzat nazkagarria izan daiteke, edo harrigarria.

Liburu tresna bat dela esan daiteke, beraz.

Erosi duen jendeak komentatu du inguruan zabaltzeko asmoa duela. Eguneroko moduan erabili daiteke, edo marrazkiak egiteko. Hasieran, orri zuriak sartzea pentsatu nuen, jendeak idazteko. Liburuaren erabilera pertsonala dela esango nuke; hasieran, norberak lasai-lasai irakurri eta irakurri ahala prozesatu eta hausnartzen joatea da interesgarria, nire ustez. Horrela erabili dut nik behintzat. Lehenengo hogeita hamahiru bizipen horiek oso indartsuak iruditu zitzaizkidan, ez bakarrik kopuruagaitik; Internet bidezko galdetegi izan arren, oso anitza izan zen, adin kontuagaitik, besteak beste.

Berrogeialdiagaz eta pandemiagaz, igarri duzu aldaketarik sexualitatearen inguruan?

Nik egindako galdetegiak lehenagokoak dira. Fanzinea ere prest nuen aurretik, baina hausnar-

ketetariko batzuk berrogeialdikoak dira. Sare sozialetan sexologo asko daude. Adibide bat jartzearen, topaketa erotikoetarako saio batean begirada motez aritu zen Mama Casquet. Beneran hori da erakutsi behar dena? Ez da garrantzitsuagoa alboko pertsona zelan tratatzen duzun, eta topaketa horretan pizten den konexioa? Alde batetik, ondo dago gaiari buruz berba egitea, baina ganoraz. Ikastaroan galderak birplanteatzen ikasi nuen, ez galderei erantzuten. Erantzunak emanez gero ikuspegia itxi egiten dela esango nuke, eta zabaltzea komeni da. Liburuan ere aipatzen dut, egun, arauaren kontra beste eredu batzuk eza-

“**Esango nuke oster ere bogan dagoen formatua dela fanzinearena, eta niri ondo datorkit**”

rriz egiten ari dela. Sexua bideratzen ari dela esango nuke, eta nire ustez irekiagoa izan beharko litzateke.

Zergaitik fanzine estiloan? Ez da ohikoena garai hauetan.

Esango nuke bogan dagoela berriro, eta ondo datorkidan formatua da. Marrazkiak eskuz egin gura nituen, modu naturalean idatzi dut, eskuz pasarte asko... Sexologia zabala denez, ez nuen gura liburu modu itxi batean egin.

Baina autokritika ere egin behar dut, liburuak akats ortografiko batzuk ere baditu eta.

Hemendik aurrerako zeozer planteatu duzu?

Oraindino liburu honen ale batzuk geratzen zaizkit saltzeko, eta jaso dut aurkezpenen bat egiteko eskaintza ere. Bestela, ideia asko ditut buruan; hilekoari buruzko horrelako antzerako bat egitea pentsatu dut, adibidez, azkenaldian gaiari buruz asko irakurtzen aritu naiz eta. Baina oraindino ez dut erabakirik hartu.

Bibliotekako ekintzak online eta presentzialki eskaintzen ditugu osasun egoerara moldatuz

MINTZA-PRAKTIKA TALDEAK
GRUPOS DE CONVERSACION

Azalerako Ipuinak

Irakurketa kluba
Club de lectura / Reading club / Club de lecture

EMAKUMEEN LITERATUR TALERRA
Taller de literatura de mujeres
VANGUARDIA ALEMANA
2020
2021

PAPERIZKO HEGOAK:
haurren irakurketa kluba
club de lectura infantil
2020 / 2021

Mintzoan kux-kux
IRAKURKETA KLUBA
CLUB DE LECTURA
2020 - 2021


Iurreta
Elizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozaturango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

MEJOR CLASIFICADA 2020



merkataritza gida sarean



anboto.org/gida




***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkatari gida parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

Webgune berriagaz, Etxezarreta jauregiko museoa etxetik bisitatu daiteke

'www.durangomuseoa.eus' helbidean erakusketak bisitatu ahalko dira; lehenagokoak ere bai



Ane Abanzabalegi zinegotzia eta Garazi Arrizabalaga museoko zuzendaria.

MUSEOA • ARITZ MALDONADO

Durango Udalak eta Arte eta Historia Museoak aurrerapausoa eman dute museoa eta bertako ezagutza zabaltzeko. "Beharrezkoa da sasoi digitalera egokitzea, eta horretarako tresna da webgunea", azaldu zuen Ane Abanzabalegi zinegotziak aurkezpenean. Garazi Arrizabalagak ere tresna berriaren garrantzia nabarmendu zuen: "Museoa ez da leku itxi bat, ezagutza gune bat da eta webgunea lagungarria da hau zabaltzeko". Besteak beste, AEBetako, Kanadako eta Estatu espainiarreko bisitak jaso dituela azpimarratu zuten aurkezpenean.

Martxoaren 14ra bitartean, Ramon Zuriarrainen *Alegiazko paisaiak eta ironiaren irudiak* erakusketa dago ikusgai Etxezarreta jauregiko museoan. Hori ez ezik, 2019ko urtarriletik hona egin direnak ere bisitatu ahalko dira webgunearen bitartez. Informazioaz eta bideoez gainera, erakusketetako katalogoak ere

Egun, Ramon Zuriarrainen erakusketa dago ikusgai museoan, martxoaren 14ra arte

ikusitakoak dira, ohikoena ez den arren.

Itxialdiko ekarpena

Atal berrien artean, 'Aste bat, artista bat' egitasmoa berreskuratu izana ere nabarmendu dute. Iazko martxo eta apirileko bederatzi asteetan zehar eginiko programazioa batu dute bertan, artisten eta historiako informazioagaz, quiz jokoekin eta bideoekin. "Beste museoek egin ez duten lan bat egin dugu, eta oso interesgarria izan daitekeela uste dugu; ikastetxeentzat, adibidez". Arrizabalagak Imanol Taberagaz eta Nerea Gastonegaz batera osatu zuen material hau.

Durungaldean aukera hirukoitza egongo da Histrion konpainiaren 'La Isla' ikusteko

Histrionek Elorrion (gaur, barikua), Berrizen (zapatuan) eta Durangon (domekan) eskainiko du bere azken lana



'La isla'.

ANTZERKIA • A.M.

Ada eta Laura dira *La Isla* antzezlaneko protagonistak. Drama gordin honetan, bizitzeak eragiten duen minaz berba egiten da, baita bizitzan hilda egoteaz ere, bien arteko marra finaz. "Ez gaude prest minerako, baina mina hor dago. Bai gure gorputzean, baita gure buruan ere. Munstroak gara min horretatik ihes egiten ahalegintzeagaitik? Ala normala da norbere burua babestea, inoren kontura bada ere?", galdegiten dute antzerki konpainiakoei.

Obrak harrera ona izan du, kritika ona, eta Gema Matarranz

eta Marta Megías aktoreen lana nabarmendu eta txalotu dute. Aktoreak Adaren eta Lauraren azalean sartu dira. Energiaz beterik dauden eta aldi berean hauskorak diren pertsonaia bi dira. Horrez gainera, 2019an Kordobako (Espainia) Palma del Río jaialdian epailearen aipamenaren sailerko saria eraman zuen obrak.

Durungaldeko bira txikia gaur hasiko dute, Elorrion (19:00etan, Arriolan). Zapatuan Berrizko Kultur Etxean dute hitzordua, 19:00etan. Durango San Agustinen ere ordu berean egingo dute emanaldia, domekan.

Gai librean

Grisa

Grisa. Hori da nire burua erreprezentatzen duen kolorea azken asteetan. Ni bezala beste horrenbeste pertsona ere badirela badakit. Egoera grisa da, zerua gris dago eta etorkizuna ere hala ikusten dut. Noiz irtengo gara bizi dugun egoera gris honetatik? Gris kolorearen definizioa bilatu ezkerro hau aurkituko dugu: "Kolore grisa egoera goibelarekin lotzen da. Pertsonak grisak izan daitezke; tristeak, malenkoniatsuak dira. Eguraldi lainotsua ere grisa da. Moda kontuetan seriotasuna adierazten du, eta kasu batzuetan dotoretzia". Nire mihise zurian grisak dauka presentzia handiena, batzuetan argiagoa da, zuri gehiagorekin eta beste zati batzuetan beltzak presentzia gehiago hartzen du. Egoera denontzat parekoa dela jakiteak



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durango museo

Egoera grisa da, zerua gris dago eta etorkizuna ere hala ikusten dut. Noiz irtengo gara bizi dugun egoera honetatik?

Etorri museo erakusketa ikustera eta murgildu zaitez Zuriarrainen koloreetan.



ere ez du argitasunik ematen laguntzen. Hala ere, definizioarekin jarraitzen badugu hau ere irakurri dezakegu: "zerebroak badu materia grisa eta, beraz, jakintsu edo intelektualen kolorea ere bada". Hala bada, honek argitasuna ematen dio nire mihiseari. Ideia hori kontuan izanda jakituria erabili dezaket koloreak sortzeko. Ilusioaren kolorea gorria izan daiteke, sormenarena urdina eta poztasunarena horia. Oinarritzko hiru kolore horiekin beste kolore guztiak sortu ahal ditugu eta, beraz, gure mihisea kolorez bete dezakegu. Hiru kolore horiek erabili beharko ditut nire artelan grisa koloretsu bilakatzeko. Zu ere batuko zara? Bestela, etorri museo erakusketa ikustera eta murgildu zaitez Zuriarrainen koloreetan. Ea horrela behintzat kolore apur bat ematen diegun zeru eta bihotz gris hauei.

Hemen eta online



Sartu anboto.org-en
menuan **iragarkiak**
atalean eta klikatu bertan.

Beheko logotipo honen gainean klik egin eta
iragarkilaburrak.eus orrialdera eramango zaitu



Zure datuak sartu
eta **erregistratu**
egin behar zara.



IRAGARKIA JARRI

Goian dagoen irudiaren gainean klik egin eta iragarkia idatzi. Sartu gura dituzun datuak eta gorde datu horiek. Agertzeko, herria aukeratzekoan ipini Durangaldeko herri bat.



Aste horretan argitaratuko dira anboto.org-en



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA / NEGOZIOAK
- DENERIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA / KIROLA
- FAMILIA / ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten doan: partikularrentzat.
Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta ipini zure iragarkia (Agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: enpresentzat. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

“Txinan, futbola asteburuko denborapasa zen gazteentzat; Estatu Batuetan, ostera, urruti heltzeko ilusioa dute”

Abendutik, Bartzelona Futbol Klubak Texas estatuan (AEB) duen futbol akademiako entrenatzaile lanetan dabil Jon Muñoz durangarra



Jon Muñoz Arberas
Bartzelona Klubeko futbol
entrenatzailea Austinen
(Texas, AEB)

Durango | 1991

nagusia dira eta jokatzeko modu hori ulertzeko ahalmena beste edozein helbururen gainetik dago. **Zer oroitzapen utzi dizu lurretakon eta Gertasporten emandako denborak?** Iurretakon denbora gutxi eman dut, baina gustua ematen du lantalde haregaz aritzeak eta oso eroso sentitu naiz. Gertasporten asko ikasi dut. Emaitzaren gainetik, jokalarien formakuntzari garrantzi handia ematen diote. Horretan, Bartzelonako akademiaren antzekoa da. Ez Gertasporten eta ez Bartzelonaren akademian ez dut sentitu irabazi beharreko presio hori. Ehuneko ehunean ados nago formakuntza ulertzeko modu horregaz. Asko eskertzen dut nigan ipini zuten konfiantza eta oso baloratuta sentitu nintzen.

Estatu Batuetan futbola bigarren mailako kirola izatera kondenatuta dago?

Futbola asko hazten dabil Estatu Batuetan, eta geroago eta ume gehiagori interesatzen zaio. Are gehiago, Austin Football Club talde berria da AEBetako liga nagusian [MLS, Major League Soccer] eta denboraldiari begirako abonua guztiak agortuta dituzte. Ez nuke esango futbola beste kirol nagusiei eremua jaten dabilenik, baina uste dut txoko bat egiten eta laster maila handiko jokalaria estatubatuarra eta selekzio nazional indartsua ikusiko ditugula.

Horko bizimodutik zer harritzen zaitu gehien?

Ezer gutxik, egia esanda. Pelikuletan ikusten dugunaren berdina da. Hain zuzen, beharbada horixe da gehien harritzen nauena, hau da, aurretik han egon zaren sentsazioa duzula. Aipagarria da ere mota guztietako jatetxeak daudela. Hanburesak eta hot-dog-ak baino ez daudela pentsatzen dugu, baina ez da horrela. Kultura asko elkarregaz bizi direnez, denerik dago. Jatetxe nepaldarrak ere badaude!

Zelan dago COVID-19aren egoera Austinen?

Une honetan kasu asko daude, Euskadin baino apur bat gehiago. Dallasen, Houstonen eta beste hiri handi batzuetan egoera oraindino

txarragoa da, hemengo positibo kopurua lau bider handiagoa da eta. Baina apenas dago murrizketarik: leku itxietan maskara erabili behar da eta jatetxe batzuek etxera eramateko zerbitzua eskaintzen dute bakarrik, baina besterik ez. Ez dago Euskadiko kontzientziario mailarik. Pena da Austinen bizi dugun egoera hau, bestela oso hiri bizia delako. Tabernetan badabil jendea, baina ez dago sasoi bateko girorik eta ez gara barrura sartzera ausartzen. Oporretan egon nintzen aurreko aldetik aldaketa handia igarri dut. Lanean, ostera, koarentena egin behar izan duten lankideak ordezkatzeko egokitu zait eta aurreko ohikoa izango den zerbaite dela iruditzen zait.

“**Austin Estatu Batuetako hiririk progresistenetarikoa da eta Trumpek ez du babes handirik hemen**”

Zelan bizi izan zenuten Capitolio liskarra?

Ez dut askorik jarraitu. Esan dezakezake da, Texas errepublikazaleen aldeko herrialdea den arren, Austin Estatu Batuetako hiririk progresistenetarikoa dela eta Trumpek ez duela hemen babes handirik.

Txinan ere egon zara entrenatzaile lanetan. Zelan gogoratzen duzu hango esperientzia?

Oso esperientzia positiboa izan zen. Eroso sentitzen zaren esparrutik irten eta Txina lako herrialde desberdin batera joateak pertsonalki asko hazteko aukera ematen dizu. Mugarri bat izan zen niretzat. Lan egiteko modu berezia dute eta mentalki zabala izatea eta autokontrol handia edukitzea eskatzen du. Hara joatea nire ibilbide profesionalean hartu dudana erabakirik onenetarikoa izan da.

Futbola desberdin bizi dute Txinan eta Estatu Batuetan?

Txinan oso onak dira kirol indibidualetan, eta ez diete garrantzi bera ematen taldekakoei. Gure akademiara etortzen ziren gehientzat futbola asteburuko denborapasa bat zen. Hemen, Estatu Batuetan, taldeko kirolak askoz ere garrantzitsuagoak dira eta jokalariek urruti heltzeko ilusioa dute. Europako ikuspegiagaz antz handiagoa du hemengo ikuspegiak.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Elorrio eta lurretako futbol klubetan prestatzaile fisiko moduan aritu zen eta harrobia lantzen duen Gertasport klubean hiru urte pasatxo eman zituen, etapa bitan. Harrobiko lanak nazioartera ere eramane du, Bartzelona klubaren bitartez. Hiru urtean Kunming hiriko (Txina) Lama Akademiaren ibili zen eta iazko abendutik abentura berri bat hasi du Texasen (AEB), Austingo akademiaren.

Zelan sortu zitzaizun Ameriketako Estatu Batuetara joateko aukera?

Txinan bizi nintzanean, Bartzelona Klubak hango Kunming hirian duen akademiako managerra ezagutu nuen. Hark Austingo managerragaz hartu-emanetan ipini ninduen eta esan nion hara joan gura nukeela, nire bikotekideagaz. Curriculuma bidali nien eta hainbat elkarrizketaren ostean

euren lantaldera batzeko deitu zidaten. Iazko abenduaren 23tik nago hemen.

Zenbat gazte dituzue akademian?

500 inguru. Baina laster gehiago izango dira, beste klub batezagaz lankidetzaz hitzarmena sinatu dugu eta. Gure akademiako parte izango dira.

Bartzelona klubeko futbol eredu partikularra da. Kontzeptu berrietan sakondu behar izan duzu?

Posizio jokoa, erabakiak hartzea, abantailak bilatuz lerroak apurtzea, aurrerantz begira defendatzea, baloiagaz eraso egitea... Hori guztia presente dago entrenamendu bakoitzean. Bartzelonak beti erabiltzen duen jokamoldea da. Beraz, futbolaria dedikatzen garenok eredu horregaz trebatuta gaude gutxi gorabehera, eta gure ibilbideko momenturen batean imitatzen ahalegindu gara.

“**Ez nuke esango futbola beste kirol nagusiei eremua jaten dabilenik, baina txoko bat egiten dabil euren artean**”

Edozelan ere, formakuntza maila handia eskatzen duen metodologia da eta hileroko egiten ditugun formakuntza saioak.

Gertasporten zeundean, Bartzelonako metodologiatik zer zenuten?

Gehiago geunden Athleticean barruan. Bartzelonako joko konbinatuak asko eragin du klub gehienetan, baina berau lantzeko modua desberdina izaten da. Gertasporten, biribil-jokoak eta baloiaren jabetza erreminta bat gehiago diren bitartean, Bartzelonaren akademian erreminta

Kart-etan iparraldeko txapelketa irabazita, Ioritz Zalloetxebarria zornotzarrak nazioarteko proba batean debutatzea du amets

13 urteko zornotzarrak Gaztela eta Leongo kart txapelketa irabazi du junior mailan. Ilusio handia egingo lioke salto bat eman eta aurten Espainiako txapelketako edo nazioarteko proba batean parte hartzeak, baina babesleak behar ditu



Ezkerrean, erdian Ioritz Zalloetxebarria podiumean. Eskuman, bere kart-ean.

AUTO LASTERKETAK • JOSEBA DERTEANO

Ioritz Zalloetxebarria Meabek (Zornotza, 2007) karting-erako dituen dohainak erakutsi ditu Gaztela eta Leongo txapelketan, junior mailan txapeldun geratuta. Espainiako iparraldeko txapelketarik garrantzitsuenak kart gidari euskaldunak, galiziarrek, asturiarrek eta burgos-tarrak batu ditu, besteak beste.

Gaztela eta Leongo lau zirkuitutan zortzi lasterketa lehiatu ditu Zalloetxebarriak. Ponferradan hirugarren postuan amaitu zituen lasterketa biak. Benamarielgo proban heldu zen bere lehenengo garaipena, eta hirugarren postu bat ere lortu zuen. Aranda de Duero beste podium bi—hirugarren eta bigarren—eskuratu zituen. Azkenik, Villarcayon, orain aste bi, amaiera

ezin hobea eman zion txapelketari lasterketa biak irabazita. Gainera, borroka polita eta estua mantendu zuen senior mailako Tania Garcia eta Lino Collado asturiarrek.

Babesle bila

Karting mundua kirol garestia da eta finantziario falta oztopo izaten da sarridan gidari gazteen garapenean. Esaterako, Ioritz Zalloetxebarria Valentzian jokatuako txapeldunen lasterketara gonbidatu zuten, baina ezin izan zen joan, gastu handia zelako.

Aurten Espainiako Txapelketako edo nazioarteko probaren batean parte hartzea gustatuko litzaioke, baina, horretarako, babes ekonomikoak behar dutela adierazi du Jon Zalloetxebarriak, Ioritzen aitak, eta babesle bila dabilza.

Jon Zalloetxebarriak ibilbide luzea du autoen lasterketen munduan. Motokrosean Bizkaiko txapelketa irabazi eta Euskadikoan podiuma zapaldu ostean, lau gurpiletara igaro zen eta urte askoan Euskadiko Rally Txapelketa lehiatu izan du.

Jokaldia

Grebaostea

Grebaren ondorengo lorpen zein kalteak bizi ditu pilota profesionalak. Gerraosteak, besteak beste, kalte sozial zein ekonomikoak dakarren moduan, eta distantziak gordez, grebaoste honek ere ondorio gazi-gozoak ekarri ditu.

Arlo sozialari dagokionez, pilotarien artean bi bando sortu dira eta, iruditzen zait, nahitaez, pilotarien arteko giroak ez duela izango lehengoaren antzik. Horren erakusle izan daiteke Baikor binakako txapelketara aurkeztu dituen lau bikoteen konbinazioak.

Arlo ekonomikoan ere izan du grebak bere eragina. Izan ere, alde biek sinatutako akordioak erantsita zekarren pilotarien soldaten murrizketa. COVIDak eragindako egoera ekonomikoaren izenean sinatu zuten, baina enpresak ez du oraindik demostratu egoera eko-



Iñaki Iza Zarazua
Pilota

"Arlo sozialean bando bi sortu dira eta iruditzen zait pilotarien artean giroak ez duela izango lehengoaren antzik"

"Zabala eta Larunbe greba amaitu zenetik partidu gutxien jokatuak dira. Bere kontuak atera ditzala bakoitzak"

nomikoak berak neurri hori hartzea eskatzen duenik.

Orokorrean pisu handiagoko lorpenak espero nituen, iruditzen baitzait adostutako puntu batzuk orain dela urte gutxi zeuden baldintzetatik berreskuratu direla. Besteak beste, lan-hitzarmen kolektibo baten eraketan nuen esperantza

jarria, horren beharra ikusten bainuen pilota munduan ere. Hala ere, lorpenik aipagarriena kaleratutako lau pilotarietara negoziatioak fede onez berrartzearen konpromisoa hartzea izan da zalantzarik gabe. Grebalariek garrantzi handia eman zioten hasieratik puntu horri.

Lorpenak lorpen, pilotari batzuek albo-kalteak ere jasaten hasiak dira. Hain zuzen ere, oihartzun handia izan zuen Bengoetxea binakako txapelketako hautagai titularretatik kanpo uzteak eta grebaren kariak ezarritako zigorra zela esan zen zaleen artean. Baina ez da bakarria izan. Ibai Zabala eta Mikel Larunbe aski ezagun egin ziren grebak iraun bitartean, grebalarien ordezkari gisa egunero zenbait komunikabidetan aurpegia ematearren. Bada, greba amaitu zenetik partidu gutxien jokatu duten bi pilotariak dira. Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.

saltsan
HONIPANTZAN

MARTXAN JARRAITZEN DUGU, ZURETZAKO LAN EGITEN...
ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO, ZURE ZAIN GAUDE!

ZABALIK GAUDE!

Kurutziaga, 40 (Durango) - 946 200 427 - 688 773 205 - saltsan@saltsan.com

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

DENDAOSTEKOAK Uxue Alberdi (Susa) 7 [#]	BALEA ZURIA Peru Magdalena (Tantaka) 2 [#]	GAUZAK DIRENA BALIRA Joseba Sarrionandia (Pamiela) 3 [#]	ETXEKO LANDAREAK Jakoba Errekondo (Argia) 4 [#]	POESIA, ZAURIEN UKENDU Ainhoa Urien (Pamiela) 5 [#]
--	---	---	--	--



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



DURANGO 3 logela

ERDIALDEAN: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea, handiak. Ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. C.E.E=G

215.000€ C.E.E=G



DURANGO 2 logela

ARTZETAGAN: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongelajangela. Ganbara. Garajea eta trastelekua.

270.000€ C.E.E=F



DURANGO

ERRETENTXU: Etxebizitza altua. Argitsua. 3 logela, komuna leihoagaz, sukaldea eta egongela terrazagaz. Garajea aukeran.

208.000 € C.E.E= F



DURANGO 3 logela

KOMENTUKALE: 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta despentsa. Trastelekua.

130.000 € C.E.E=F



DURANGO 3 logela, 2 komun

ARTEKALE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza komunitarioa. Bizitzera sartzeko moduan.

198.000 € C.E.E=F



DURANGO 4 logela

F.J. ZUMARRAGA: 110 m2. 4 logela,, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Gaur egun 8 gelatan banatuta. Terraza komunitarioa. C.E.E: E

216.000€ C.E.E=F

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: San Inazio Auzunea. 3 logelako pisu ederra. Balkoi handia. Sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.

DURANGO: Txibitena kalea. 4 logela. Logela guztiek kalera ematen dute. Komuna, egongela eta despentsa. Garajea eta trastelekua.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ABADIÑO: Torresolo kalea. 3 logela. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

//BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela. LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zahaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ELORRIO: Araunas auzoa. Baseri eder bat eraikitzeke. 10.000 m2. Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: Aldegoiena auzoa. 7.500 m2. Baseri ederra, leku lasaia eta baketsua.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeke.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

20 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 47 m²

ERROTARITXUENA: 47 m2. Logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran + 12.500 €.

169.900 €. C.E.E: Bidean



DURANGO 2 logela, 63 m²

ARAMOTZ. Lehen 3 logela. Sukalde jantzia, egongela eta komuna. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du. Laster igogailua ipiniko dute. Garajea aukeran Bizitzen sartzeko moduan.

129.500 € C.E.E: E.



DURANGO 67 m², 2 logela

SASIKOA: Sukalde jantzia, egongela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Hegoalde. Argitsua. 28 m2-ko garaje itxia eta 3m2-ko ganbara barne. Igogailua.

229.000 € C.E.E:E.



BERRIZ 3 logela, 83 m²

TRAÑABARREN HIRIBIDEA: Egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. 8 m2-ko ganbara. Igogailua. Argitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran + 10.000 €.

172.000€



ABADIÑO 11.200 m²

MENDIOLA AUZOA: 500 m2-ko bifamiliarra eraikitzeke baimena duena. Etxeak beheko solairua eta lehenengo solairua (+ sotoa) izan ditzake. Laua, sarbide errazekoa eta argitsua. Ura eta argia partzelan bertan.

225.000€ + BEZ



MUNTSARATZ 3 logela, 81,7 m²

Arlozabal: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. 10 m2-ko ganbara. Eguzkitsua. Igogailua.

180.000 € C.E.E: E

//DURANGO

AMBROSIO MEABE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. **LEHEN 205.000 € / ORAIN 198.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 300.000 € / E.E.Z=F**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. **220.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **155.000 € / E.E.Z=E**

MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m2-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 342.576 € / ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E**

ATXONDO

ZIARRETA KALEA: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. **160.000 € / E.E.Z=G**

//BERRIZ

ANDIKONA AUZOA: Berreraikitzeke baserria. **460.000 €.**

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

ERROTATXO KALEA: 3 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=G**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

//IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 276.000 € / ORAIN 265.000 € E.E.Z=E**

FAUSTE AUZOA: Baserria. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Lurzorua. **300.000 € / E.E.Z=G**

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. **LEHEN 200.000 € / ORAIN 168.000 € / E.E.Z=F**

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 220.000 € / ORAIN 210.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

//BERRIAK

ZORNOTZA
GUDARI KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia eta terraza. **240.000 € / E.E.Z=D**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 29 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 30 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurrenondo 22. - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 31 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA 1 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 2 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurrenondo 22. - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 3 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 4 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZAIKUARTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENKO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Xuban** eta **Katrin** (835. alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Urtarrilaren 25ean **Oihanek** 5 urte egin zituen, anaia nagusi bihurtuta. Asko maite zaitugu. Muxu asko Alainen eta amatxoren partez!



Urtarrilaren 27an **Elene Loroño Bizkarrak** 11 urte egin zituen. Zorionak eta besarkada handi bat familiaren partez. Jarraitu horren noblea izaten. Asko maite zaitugu!



Zorionak, **Endika** zure 9. urtebetetzear. Egun polita eta alaia izan. Aita Lander, ama Ana, arreba Irati, Luzia eta Eder lehen-gusuak, aitteitte Karlos eta Luis, amama Enkarna eta beste senideen partez.



Zorionak, bikote! **Markelek** martitzenien ta bere lehen-gusina **Jonek** zapatuen, 8 urte beteko dabaz. Urte arraro samarra bada be, egun itzela euki deixuela ta ixen zaittie oinarre besteko zorixontsu!

Eguraldia

ZAPATUA 12° / 8° ☁

ASTELEHENA 13° / 9° ☁

EGUAZTENA 16° / 8° ☁

DOMEKA 14° / 9° ☁

MARTITZENA 18° / 11° ☁

EGUENA 14° / 6° ☁

urtxintxa jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Arrike Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

“Ogia egitea erraza da, ogi ona egitea da gatxa; denbora eskatzen du”

Okindegian 23:00etan ekiten diote lanari, lehenengo ogiak 05:00etarako prest egon daitezen banaketa egiteko. Berria okindegian bost laguneko lantaldea dira



Rosi Navarro
Catalan
Okindegia du Durangon
Ermua | 1985

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Ama-oreagaz egindako ogia eta opilak ditu Rosik Durangoko Lehendakari Agirre kalean duen Berria okindegian. Zaragozarra da jaiotzez, eta maitasunak ekarri zuen Euskal Herrira, orain 14 urte. Ogiagaz moda kontuak badirela azaldu du, eta ezjakintasan handia dagoela. "Egoketa-erdiko ogiagaz min handia egiten dugu. Umeek masailezurra landu behar dute", dio.

Zenbat urte daramatzazu ogi artean murgilduta?

Jaio nintzenetik. Aita okina zen, eta aitita ere bai. Hirugarren belaunaldia naiz. Zaragozatik Ermura etorri nintzenean, okindegi batean lan egin nuen. Orain urte bi Durangon okindegia hartzeko aukera

sortu eta aurrera egitera ausartu nintzen.

Familiatik datorkizu ogibidea.

Bai. Irin garbiekin lan egin gura izan dut beti, ama-oreagaz egindako ogia egin gura nuen, ongailurik barik, ogi-artisaua. Apurka lortu dugu bide horretan sartzea, okindegia eraldatzea. Pozarren nago.

Erronka horretan, gogor eragingo zuen pandemiak.

Gogor-gogorra izan da. Taberna eta jatetxe asko bidean geratu dira eta horrek gudan eragiten du. Bestalde, auzokoek gu ezagutzea ere ekarri du pandemiak. Bizimoduan etenaldi txiki bat eragin du eta etxe alboan ogia hartzeko aukera dagoela ohartu gara. Askok orain ezagutu gaituzte.

Aitaren eta aititaren eskutik ikasi zenuen ogibidea?

Era inkontzientean ikasi dut ofizioa, txikitatik. Okindegi batean hazitakoa naiz, eta asko ikusitakoa naiz. Jakin barik barnerratu nuen ofizioa, eta orain neuri jardutea tokatu zaidanean konturatu naiz horretaz. Nekienaz ez naiz jabetu orain arte.

“

Pertsona nagusiak dira mokofinenak eta zorrotzenak. Eurentzat ez da moda kontu bat”

■

Geroago eta ogi mota gehiago daude. Zenbat buru hainbat ogi?

Ez horrenbeste, baina ia (barrez). Ogi mota asko daude, irin porzentaiaaren arabera bat edo beste irtengo da.

Badago tokia denentzat?

Bai, ogia gustuko duenari asko gustatzen zaio ogi motaz aldatzea. Ez ditut ogi mota guztiak egunero egiten: astelehenetan, arto-ogia eta zekale-ogia egiten ditut; martitzenetan, intxaur eta mahaspasaduna; eguaztenetan zerealduna... Badago jendea aldatzea, probatzea, gustatzen zaiona eta gaur zer ogi dagoen galdetzen duena. Gainera, ogi kontuetan apur bat berezia dena desberdina den horren bila doa.

Mokofinak gara ogiagaz?

Pertsona nagusiak dira mokofinenak eta zorrotzenak. Eurentzat ez da moda kontu bat, badakite zer gura duten, betiko ogia gogoratzen dien hori eskatzen dute. Eurek igaritzen dute gehien zelakoa den ogia.

Ogiak loditu egiten du? Mito asko daude ogiaren inguruan?

Ogiak ez du loditzen, ogi artean sartzen dugunak loditzen du. Elikadura orekatua eraman behar da. Hori bai, ez dugu ogi barra osoa jango.

Geroago eta jende gehiagok egiten du ogia etxean. Badago sekreturik ogi ona egiteko?

Ogia egitea erraza da, ogi ona egitea da gatxa; denbora eskatzen du. Kalitatezko irina erabiliz gero eta ogiaren prozesu eta denborak errespetatuz gero, ogi ona lortuko dugu. Prozesua ezagutu behar da. Jende askok ogi ona egiten du etxean.

Edozein tokitan erosi dezakegu ogia gaur egun. Ogiaren esentzia galdu dela uste duzu?

Ogi ona gura dugu, baina ez dakigu non erosi; edozein saltoki handitara goaz erostera. Ogi horrek gehigarri batzuk ditu, beste prozesu batzuei jarraitzen die... inoiz ez da artisau -lantegi batean egindako ogia izango. Ogiaren esentzia galdu da. Hauts magiko asko daude ogiari itxura konkretu bat emateko, izozkailuan denbora gehiago mantentzea lortzeko... Hori guzti hori kentzea izan da nire erronka. Gasolindegian, frutategian... ogia dago eta horrek kalte handia egiten digu.

Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia
Behargina



Heldutasuna

2021arekin batera hamarkada berri batean sartu gara, aldatetaz beteta datorrena. Niri aldaketa nagusi bat ekarriko dit: aurtun 30 urte beteko ditut, eta beraz, hamarkada honetako momenturen batean heldua izatera pasatuko naiz, ofizialki.

Argi esango dut: oso dezepzionatuta nago helduekin. Ke saltzaile batzuk dira, iruzur hutsa. Bizi osoa daramat eurei jaramon egiten, zalantzak ditudanean euren gomendioei jarraitzen, eta zenbat eta parez pareko harreman gehiago eduki eurekin, zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta dezepzionatuago nago. Onartu dezagun behingoz: helduak burubako oiloak dira, ez dakite zertan dabilzan, edozerk gainezka egiten die, frustratzen direnean lelokeriak egiten dituzte, animaliak lez beldurtzen dira, ez dute heriotza ulertzen eta izua diote, zaratsutsuak dira, negartiak, gustatzen ez zaizkien gauzak egiten dituzte eta ulertzen ez dituzten bizi-eritmoetan sartuta daude. Hau da, ni bezala. Baina helduengandik gehiago espero nuen, beste maila bat. Nik uste nuen gauzak argi zituztela, bazekitela zertan zebiltzan, egoera kontrolpean zutela. Jende serioa dirudi, eta ez. Itxura errespetagarri horren atzean segurtasun hipokrita bat besterik ez dago, noraez dotore bat.

Kezkutzen nau baina lasaitzen nau aldi berean: helduek sortu duten gezur hori oso grabea da baina heldu egitea ez horrenbeste. Nire heltze prozesu horretan, saiatuko naiz fartsari eusten. Oraingoz, hemen gauza serio antzekoak idazten jarraituko dut, ezer dakidanaren plantak egiten, ea norbait gainatzen dudana.

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com